

Euskararen erabilera Urnietan

Jon Lizaso euskara teknikariak euskararen erabilaren datu apalen gaineko analisia egin du, Aiurriri emandako elkarrizketan / 2-3

Etxekoek eta lagunek azken agurra eskaini zioten Felipe Izagirrerri, Goiburuko Oiarbide baserrian / 4

Nafarroako Galdeano herrian egiten den Basajaun mendi-lasterketa irabazi du Jokin Lizeagak / 12



Haurren euskal jaialdia

Edizio berria, igande honetan, Urki dantza taldearen eskutik / 5

GAU BELTZA

URRIAK 31, ASTELEHENA

18:00 Txokolate-jatea Goikoplazan.

19:00 Gaztain-jatea Kale Nagusian.

20:00 Talo-jatea Etxeberrieta plazan. Ondoren ospakizuna: Antzezpena, dantza, zezen-suzkoa. Bidean zehar goxoki banaketa..



ANDOAIN



ANDOAINGO UDALA
Enplegu eta Sustapen
Ekonomiko Lansaila





Jon Lizaso, euskara teknikaria. AIURRI

“Euskararen ezagutza Urnietan % 75ekoa da, baina erabilera % 21ekoa; egoera kritikoa da”

JON LIZASO MINER URNIETAKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

Alarma gorrian gaudela dio, eta erantzule nagusiak helduok gara: “Haur eta gazteek etxean erdara entzuten badute, kalean erdaraz ariko dira”

Andoni Urbistondo URNIETA

Jon Lizasok (53 urte) mende laurden bete du Euskara Teknikari jardunean, Urnietako udaletxean. Kale erabileraz arduratzen da, batez ere, eta aho bizarririk gabe mintzatzen da egoera kritikoa dela onartzeko. Lekaio Kultur Etxeko bere bulegoan egin du Aiurrirentzat euskarak herrian duen egoeraren analisi gordina.

Nor zaitugu, Jon?

Urnietarra, euskara teknikaria 1997az geroztik. Hasieran itzultzaile eta interpretari aritu nintzen, baina berehala teknikari lanean herrian, baita Buruntzaldea eskualdean ere.

Zein da zure ardura?

Bi atal daude. Udaleko euskalduntze prozesuaren ardura eramatea, eta herri mailakoa. Xanti Gorrotxategi lankidea ardu-

ratzen da Udaleko zereginaz: lantaldeko hizkuntza eskakizunak, euskara maila hobetu nahi duenari lagundu, klase partikularren bat edo beste... Neu herriko euskararen jarraipenaz arduratzen naiz, batez ere: ikasketxeak, merkataritza, elkar-teak... Bulego lana izaten da, batik bat. Sustapen arloko langileak gara, eta lan transbertsala egiten dugu, hainbat arlotakoa.

Zein da euskararen egoera Urnietan? Zein da teknikariaren diagnosia?

Kale erabileraren neurketa bost urtez behin egiten da. 2001ean egin zen lehena, eta ondoren 2006an, 2011n, 2017an eta 2021a azkena. Egoera orokorra ez da sobera aldatu, baina jaisten ari da etengabe. 2006ko erabilera datua % 23.1 zen. Kanean entzuten ziren hamar elkarriketetik bi, euskaraz. 2011an, % 22.98ra pasa zen datua, eta 2017an % 22ra. % 0.9ko murrizketa. Iazko datuak % 0.9ko beste jaitsiera bat erakusten du, eta erabilera % 21.1ekoa da.

Nola egiten da neurketa hori?

Neurtzaile bat ibiltzen da kalerik tablet batekin, eta entzuten dituen solasaldiekin egiten du kalkulua, inori galderarik egin gabe. Nabardura bat egin behar da: kanpoko hizkuntzen erabilera handitu egin da azken mende laurdenean. 2006an, % 0,03koa zen, eta, egun, % 0,4koa. Alegia, laukoiztu egin da kanpoko hizkuntzen erabilera. Frantsesa, ingelesa, arabiera eta Afrikako zenbait dialekto jaso dira. Jendea etorri izan zaigu diru-laguntzak eskatzera, afrikarra, bost hizkuntza hitz egiten dituenak. Pentsa...

% 21.1eko datua ikusi, eta zein ondorio ateratzen duzue?

Egoera kritikoa dela eta alarma gorrian gaudela. Laurden batek bosten batera pasa gara. Joera orokorra da, Gipuzkoa osokoa, ez Urnietakoa soilik. Eredugarritasuna da egoeraren gakoa, nire ustez. Helduok joera handia daukagu gazteak edo umeak euskaraz ez direla mintzatzen esateko, baina horren erantzuleak helduok gara, eta datuekin frogatuko dut.

Bota.

45-64 urte arteko adin-tartean erabilera % 13,8koa baino ez da. Oso datu txarra da, ez sinesteko modukoa. Zu eta ni adin tarte horretakoak gara. Sumatzen al dugu errealtate latz hori gure inguruan? Ziur-reenik, ez. Gazteei dagokienez, 15-24 urte arteko tartean, antzekoa da datua: % 13.5. Adinekoen artekoek, 64 urtetik gorakoek dute denetan datu txarre-na: % 13.1 bakarrik. Datu one-nak 2 eta 14 urtekoek ematen dituzte, % 26.1, eta 24-45 urte artekoek: % 32.6. Zergatik ematen da euskara erabileran haustura handi hori 14-25 urte arteko tartean? Datuak txukunak

dira gazteenen eta 25-44 adin tartean, baina bien arteko multzoan nahiko txarrak dira. Adin tarte horietako herritarrak, gainera, eta Urnietan hazi eta hezi badira, D ereduaren ikasi duten herritarrak dira denak. **Eredugarritasuna aipatu duzu. Zertan, zehazki?**

Helduak txakurrari eta haurrari euskaraz egiten dio etxean, baina bere bikotearekin erdaraz, biak euskaldunak izanda ere. Hori oso ohikoa da. Haurrak, umeak, 15 urteko gazteak, bizitzako une garrantzitsuan, bere etxean, erdaraz hitz egiten dela ikusten badu, erdaraz egingo du. Zer esan sare sozialen gainean: dena erdaraz. Telebistan ere euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenik ez dago apenas. Faktore asko batzen dira.

Eta kuadrilla askotan ere erdararako joera sumatzen da, denak euskaldunak izanda, edo bakarren batek euskara ez badaki.

Bai, eta hortaz jabetu gabe askotan. Zenbatetan afari bat egin lagunekin, eta biharamunean kideren batekin batekin solastatu, "atzo erdaraz gehitxo aritu ginen, ezta?". Antzeko egoerak errepikatu egiten dira, baina egoera hori iraultzea ez da zaila. Indarra egin behar da euskaraz egiteko, egiten bada segida ematen zaiolako. Ez da gaitasun falta, ohitura aldaketa baizik. Hortik 'Euskaraldia'-ren moduko ekimenen garrantzia. Eskala edo maila handian hainbat ertz daude, ihes egiten dizkigutenak, baina gure esku dagoen esparru edo eskala horretan eragin dezakegu. Gu geu izan gara gure teilatura harria bota duguna. Gertatu izan zait bulegora euskara ikasi nahi duen atzeritarren bat etorri, eta natural esan: "Jode, porque me han pedido en el trabajo, porque si no, no hablais euskara. Saber, sabeis, pero no hablais". Jakina, tonto aurpegiarekin geratzen zara, egia gordina delako.

'Euskaraldia' bi urtez behin egiten da. Sarriago egin beharko litzateke?

Urtero askotxo litzateke, monotonian jausteko arriskua legokeelako, baina, bi urtez behin, halako ekimen potolo bat egitea funtsezkoa da. Eta hori bezain garrantzitsua: norbanakoen eguneroko ekintza xumeak. Bernardo Atxagak esaten zuen, xaboia eta hizkuntza justu kontrakoak direla. Xaboia, erabili ahala,



"Indarra egin behar da euskaraz egiteko, egiten bada segida ematen zaiolako. Ez da gaitasun falta, ohitura aldaketa baizik". AIURRI

gastatu egiten da. Hizkuntza, aldiz, erabili ahala, aberastu egiten da. Hizkuntza bat erabiltzen ez bada, galdu egiten da, hori garbi eduki behar dugu. Gutako edozeinek bizi izan du egoeraren bat, non bi lagun euskaradun peto ikusi, eta erdaraz

"EUSKARA EZAGUTZA OSO ONA DUTENAK URNIETAN % 60 BAINO GEHIAGO DIRA"

hitz egiten sumatu. Hori aldatu behar da.

Nola irauli erabileraren datu txar hori, egunoroko joera gaizto horiek? Ba al du erremediorik?

Ez daukat formula magikorik, baina mezu itxaropentsua zabaldu nahi nuke. Ahalmen itzela daukagu, ezagutza oso handia delako. Euskara ezagutza oso ona dutenak Urnietan % 60 baino gehiago dira. Ahobizi gisa definitu ditzakegunak. Eta Eustat-en estatistiken arabera, ia euskaldunak direnak, alegia, belarriprest izango liratekeenak,

euskaraz aritzeko gai, beste % 15. Horrek % 75eko ezagutza maila ematen digu Urnietan. Gaitasun handia da hori, baina ez diogu etekinik ateratzen. Zerbait egiten hasi beharra daukagu, baina herrian bertan aurrena, nazio esparru edo eskalan

"EUSKARAREN ALDE KEINU TXIKIAK EGIN BEHAR DIRA, EGIN BEHAR DITUGU DENOK"

baino lehenago. 'Euskaraldia'-ren moduko ekimenak beharrezkoak dira, baina egunerokotik hasi behar dugu.

Neurri zigortzaileak hartzeko punturaino iritsi beharko al dugu, euskararen erabilera hobetzeko?

Gaur egungo jendartean ezinezkoa da halakorik egitea. Askatasunaren gizartean bizi gara. Euskal Telebistan 'Memoria eraikiz' saioa ikusi nuen, pasa den astean, eta Guda Zibila irabazi zutenek agur hitza nola debekatzen zuten erakutsi zuten, agiri batzuekin. Antzeko kasu asko erakutsi zituzten. Ezin dugu egoera hartara bueltatu. Zigor neurriak eskuin muturreko alderdi politikoen ondare dira.

Eta nola suspertu, animatu, eragin?

Ez daukat edabe magikorik, esan dut lehenago. Gure txikian saiatuz, nahiz eta lan handia izan, eta sarri etsigarria. Herriko kirol elkarteetan, 16 urtez azpiko taldeetan euskaraz hitz egiteko araua dago indarrean, baina, batzuetan, ez da betetzen. Betearazten saiatuz. Keinu txikiak egin behar dira, egin behar ditugu denok. Ezinezkoa da % 75eko erabilerara iristea, hori garbi dago, baina behe-ranzko joera irauli eta % 21etik % 25era pasako bagina, aurre-rapauso handia litzateke.

'Euskaraldia' hilabete barru hasiko da, azaroaren 18an. Nola dago egoera Urnietan?

Beno, Sanmieletan, ekitaldiren bat egiteko asmoa geneukan,

txekor-dastatze egunean, hain zuzen ere, baina antolakuntza arazo batzuk izan genituen, eta ezin izan genuen ezer prestatu. Badago euskara batzorde bat, bilduko gara eta ekitaldiak antolatzen saiatu.

Datorren azaroaren 5erako egin nahi genuke zerbait, ea posible den. Hortik aurrera herria suspertu, pankarta, logo eta besteekin.

Badira 'Euskaraldia' itxurakeria baino ez dela diotenak. Alegia, euskararen alde zerbait egin dugula esateko balio duela, baina hortik aurrera ezer gutxi egiten dela. Zer diozu?

Beno, errazena kolkoan txapa jartzea da. Lau urte atzera ia mila lagunek jarri genuen txapa Urnietan. Sekulako kopurua da. Hiru ekitaldi publiko handi egin ziren, hamaika hamaikako osatu, parte-hartze handiaren... Oso polita izan zen, baina txapa eramateak esan nahi du jarrera egoki hori eduki behar dela azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte, gutxienez. Ondoren, jarrera hori urte osoan mantentzea da gakoa.

Euskara maite dugula erakutsi behar dugu, egunero.

"EUSKARALDIA ATE-JOKA, DATORREN AZAROAREN 5ERAKO EKITALDIA ANTOLATU NAHIKU GENUKE"



errigora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da




eskatu saskiak eta eman itauspoa euskarari







KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Amaren jaiotetxearen pareko zuhaizpean, bi lizarren artean, egin zioten azken agurra, Feliperi. AIURRI



Hitza, kantua eta poesia nagusitu ziren azken agurrean. AIURRI

Adiorik ez, Felipe

Urriaren 11n zendu zen, eta urriaren 16an azken agurra eskaini zioten senideek eta lagunek. Ekitaldi xumea izan zen, eta bertan hitza hartu zuten kide hainbat kidek Feliperen dohainak deskribatu zituzten. Besteak beste, haren giza-balioak

Xabier Lasa URNIETA

Felipe Izagirre Esnaleten etxeak eta lagunak Goiburu auzoko Oiarbide baserrian elkartu ziren haren errautsak lurperatzeko. Esanahi berezia du tokiak, amaren jaiotetxearen pareko zuhaizpea delako. Feliperen eskaera bete zen, modu horretan. Ekitaldi parte hartzailea izan zen, Miren Garmendiak gidatu zuena. **Angel Irastortzak**, esaterako, Euskal Herriko Duintasunez Hiltzeko elkartearen (DHE), memoria his-

torikoan eta espiritualtasunaren lanketa taldean egindako ibilbidea azpimarratu zuen. **Mikel Izagirrek**, bere aldetik, Feliperekiko beti izan zuen sentsazioa deskribatu zuen: ahularen alde ekiteko zuen bokazioa. "Maitasun emalea bai, baina ekintzetan mamin-tzen zena. Lanean, egunerokoan erakusten zuen besteekiko jarra hori, ezinean ahul zebiltzanen aldekoa. Modu kritikoa, baina baikor beti, gauzak egin zalea zen. Horixe izan da Feliperen-

gandik jaso dudan leziorik handiena eta gogoangarriena". **Josu Chueca** historialaria Feliperen bizilaguna zen, Donostiako Antigua auzoan. Memoria historikoaren aldeko Goldatu elkartearen kide gisa egindako lana gogoan hartu zuen: "Auzo berekoak ginen Donostian, eta bizikleta zaleak ere bai. Bizikletan dabilena pertsona ona dela uste dugunok izanik biok, elkarrekin hizketan egiteko geratzen ginen tarteka, kalean. Azkenekoz kalean topa-

tu ginenean, orain asko ez dela, txakalaldia gainditu eta indarberritzeko itxaropena transmititu zidan, eta sinetsi egin nion. Bere heriotzak, erabat ezustean harrapatu ninduen". Goldatu elkartearen alderdi militantea ezagutzeko parada eduki zuen Chuecak, eta bere jarre-eragin izan zion arreta: "Beti zeukan puntu heterodoxo eta kritikoa, eskertzekoa dena. Gainera, bazekien jarrera hori bateragarri egiten ekimenak aurrera eramateko borondate baikorrarekin". **Miren Garmendiak** 1978an ezagutu zuen Felipe Izagirre, Udaiko Euskal Unibertsitatean: "Azken asteetan, jada gaizki zegoenean, bi egonaldi sakon bizitu nituen berarekin. Felipe, ohean eserita, ahots garbi eta baketsuarekin, eta buru argitasunez, gauza asko adierazi zizkidan. Isiltasun luze baten

ostean, liburu bat idazteko moduko pentsamenduak eduki zituela ere aitortu zidan, eta baita ere zenbat eragin zioten apaiza izatea utzi eta kartzelatik irten ostean elkarrekin edukitako solasaldiek. Opari polita eskaini zidan hiltzorian egonik". **Kepa Zugadik** Felipe Segoviako kartzelan ezagutu zuen, 70eko hamarkadan: "Frankismoak apaizen-tzako Zamoran irekitako kartzelatik Segoviako kartzelara lekuzaldatu zuten; gu bertan geunden, eta bere presentzia kontrapuntu polita suertatu zen preso politikoentzako. Nahiko zakarrak ginen, eta arreta eragin zigun Izagirrek. Filosofia, etika, giza eskubideak zein giza balioak ahotan edukitzen zituen berak". **Joxetxo Ansak**, azkenik, Cesare Pavese Italiako poetaren hitzak -Xabier Letek euskaratuak- irakurri zituen.



Eguraldi ona baliatuta, 2019an erromeria antolatu zuten Goikoplazan. AIURRI

Haurren euskal jaialdia, igandean

Zertan da euskal folklorea, XXI. mendean sartuta? Ondo baino hobeto islatuko da une hori igande honetan, Haurren Euskal Jaialdiaren 32. edizioan. Euskal Herri osoko ordezkariak hurbilduko dira Andoainera, egun osoko ospakizunaz gozatzeraz

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2022a itzuleraren urtea izaten ari da. Urki dantza taldeak euskal folkloreak aldeko apustu berria egin du, 2019ko Euskal Jaialdiari jarraipena ematen dion edizio berria antolatuz. Eta, itzuleraren urtean, garai bateko arrakasta lortu duela esan daiteke, Euskal Herri mailako edizioa antolatzea lortu duelako. Itzuleraren urtean, hainbeste talde berriro elkartzea nabarmentzeko xehetasuna da. Urkik zabaldu duen oharrean ageri dira igande honetan Andoainera hurbilduko diren taldeak: Getxo, Markina eta Añorgako dantza taldeak; Gasteizko txistulari eta eskusoinulariak;

Azkaingo musika taldea; Deba, Oion eta Lizarrako gaiteroak; Iruñako erraldoi txikiak eta Hernaniko bertsolariak. Haiei guztiei harrera egingo die Urki dantza taldeak eta baita Olagaingo txistulari taldeak, trikitilariak zein bertsolariak ere.

Ordezkaritza zabala lortu dute, baina badira Andoainera hurbiltzeko ezintasuna adierazi duten taldeak. Edizio berrieta-

GAUR EGUN, GUZTIRA 75 HAUR DANTZAN ARI DIRA URKI DANTZA TALDEAN

rako esku zabalik izango dira Urkiko kideak.

Emanaldi berezia Andoaingoa Urkirentzat emanaldia berezia da, Haurren Euskal Jaialdiaren lehen edizioa Andoaingo taldea sortzeko pizgarri izan zelako.

2022an taldea sasoiko dago Ikasturte honetan 75 haur dau- de Urki dantza taldean izena

URKIK EUSTEN ASMATU DU ETA HORRETAN GILTZARRI IZAN DIRA FAMILIAK ETA IRAKASLEAK

emanda, bost taldetan banatuta. Dantza taldeak, beraz, aro zail bati aurre egin eta eusten jakin du. Pandemiak eragindako zailtasunak agerikoak baitira gizarte bizitzan. Andoainen, zorionez, pandemia ostean jarraipena izan dute eta Olagaingo eskola dantzari gaztez bete da. Aurrera egiteko xede horretan, giltzarri izan dira familiak eta dantza taldeko irakasleak.

Urki dantza taldekoen eskertza Ekaineko lehen asteburuan ospatzen da Haurren Euskal Jaialdia, baina aurtengoa salbuespena izango da, urrira atzeratu baitute. Gauzak ondo, 2023an garai bateko egutegia berreskuratu dute.

Bitartean datorrenari heldu behar, eta antolatzaileak igande honetako hitzordurako gogotsu daude. Gogotsu, eta eskertuta: "Eskerrik asko jaialdia posible egiten duzuen lagunei, senideei, elkarreei, ikastetxeei, kartel egileei, txistulariei eta Andoaingo Udalarri".

IGANDE ARRATSALDEKO ERROMERIA OSPAKIZUN HANDIA IZATEA NAHI DUTE

Egun osoko jaialdia, goizean hasita

Urriak 23, igandea ANDOAIN

Jaialdia eragile askoren lankidetzari esker gauzatzen da. Urkik haien guztien lana eskertu du, ohar bidez.

10:30 Taldeen bilkura, Goikoplazan. Hortik abiatuta, lau ibilbide egingo dira udalerriaren zehar. Ibilaldian Andoindarra, Belkoain Berri, Irunberri, Peña Santa Krutz eta Zumeatarra elkarrean harrera egingo diete dantzari.

12:45 Jaialdi nagusia, Goikoplazan. Ondoren, bazkaria herriko ikastetxeetako jangelatan.

17:00 Bertsolarien agurraren ostean, euskal festa Goikoplazan. Plaza dantzak Malkogarriyak taldearen eskutik.



AIURRI

1972an jaiotakoen ospakizuna

Duela berrogeita hamar urte jaiotako andoaindarrek bilkura egin zuten Gaztañaga sagardotegian, aurreko larunbatean. Mende erdiko biritza elkarrekin ospatzeko, Goikoplazan bildu ziren eguerdian, eta poteoa egin ostean, Gaztañaga jatetxean bazkaria egin zuten giro ederrean.

Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (Erdaraz, EGB edo Educacion General Basica) garai bateko sistemaren kumeak dira guztiak ere, eta Andoainen sei ikastetxetan egin zituzten lehenbiziko ikasturteak: Milagrosa, Berrozpe, La Salle, Aita Larramendi Ikastola, Ondarreta eta Leitzaran.



Kale Nagusiko bulegoa. AIURRI

Bigarren bulegoa itxi du Kutxabankek Andoainen

Hilabeteak dira Kale Nagusiko egoitzan aurrez aurreko zerbitzurik eskaintzen ez zuela, baina, behintzat, bulegoaren barruan, dirua ateratzeko hiru makina zeuden. Orain, hori ere ez. Kutxazain bakarra utzi dute, kalean bertan. Txitibar plazakoa itxi zuten lehenik, eta haxe da Kutxabankek itxi duen bigarren egoitza.

ARIGUNEA

ARIGUNEA

**EUSKARAZ LASAI
ARITZEKO GUNEA**

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

**ARIGUNEENTZAKO
IZEN-EMATE EPEA ZABALIK**

**Aurreko edizioan
parte hartu al
zenuen?**

**Arigune
berria
al zara?**

**EGUNERATU
DATUAK!**

**EMAN
IZENA!**

**ANDOAINGO ENTITATE,
IZAN PUNTU-ERAGILE!**

Edozein zalantza eta informazioa: andoain@euskaraldia.eus

Aurrekontu Parte-hartzaileen bozketa fasea hasi da

Udalerriko hainbat tokitan aurkeztu daitezke proposamenak

Erredakzioa ANDOAIN

Honako hauek dira herritarrek urriaren 31era bitarte bozkatu ahal izango dituzten 10 proposamenak. Kontutan eduki, herritarrek gutxienez 16 urte eduki beharko dituela parte hartzeko:.

- 1. Ondarreta kalea berrurbanizatze proiektua: zerbitzuak berritzea, aparkalekuak berrantolatzea eta oinezkoentzako ibilbide irisgarriak sortzea. 60.000 €.
- 2. Zaintzako baliabideen eta beharren azterketa eta 12 urte

- baino gutxiago dituzten umeentzako udako jarduerak ordu bat luzatzea. 40.000 €
- 3. Andoaingo bizikleta bideen Plan 60.000 €
- 4. Zebra bide arriskutsuen beharrekoak aztertu (adibidez, Juan Bautista Erro-Kale Nagusi), argiteria, pintaketa, kaptafaroen ezarpena, umeentzat errepidea zeharkatu aurretik eman beharreko pausoen 15.000 €
- 5. Sarbide publikoko hainbat udal-eraikinetan edoskitzea errazteko guneak sortzea 5.000€

- 6. Andoaingo Liburutegia larunbat eta igande goizak irekitzea ohiko zerbitzu guztiak 40.000€
- 7. Lan munduratzeari: kursoak sortzea, praktikak egiteko eta enplegua lortzeko aukerarekin, batez ere emakumeentzat. 60.000 €
- 8. Andoainerako 2030 Agenda egitea, onartzea eta zabaltzea, tokiko eremuan Garapen Iraunkorrerako Helburuak jorratzeko. 25.000 €
- 9. Olagain auzoa eta Joakin Larreta kalea Kaleberriarekin lotuko dituzten ibilbide irisgarriak oinezkoentzat sortzeko 60.000 €
- 10. Bizikleta elektrikoak alokatze sistema bat ezartzea, Andoaingo leku Estrategikotatik kargatzeko, aparkatzeko eta alokatzeko hainbat puntu izango 250.000 €



ERNAI

Aldarrikapen festa

Goizean goizetik, aldarrikapenaren niki txuria jarri eta Bekoplazan egin zen prekarietateari buruzko hitzaldiarekin hasi zen Gazte Eguna. Ondoren, aisiari ireki zitzaion bidea marianitadarekin, jarraiana, talde argazkia eta 14:30ean bazkaria. Hortik aurrera, jende

gehiago gerturatzen hasi zen festa girora eta karropoteoaren musikarekin bat eginda Gaztetxerako bidea egiteari ekin zioten, tabernaz taberna. Azkenik, Xiberoots eta Ameba talde ezagunek eman zioten amaiera egunari.



Udal ordezkariak Burdinako kideekin batera. AIURRI

Udal ordezkariak Burdinaren Gordelekuan izan ziren bisitan

Burdina taldeak iraganeko makina bat tresneriekin Gordelekua izeneko museoa atundu berri du

Xabier Lasa ANDOAIN

Kolaboratzaileekin eta piezak dohantzan eman dituzten herritarrekin bisita gidatuak egin ditu aurreko astean, eta udal ordezkarien txanda izan zen atzokoan. Ez dute zehaztu herritarrentzat noiz eta nola irekiko dituzten museoko ateak, eta oraingoz, Gordelekura bisita egin nahi duenak honako telefonora deitu beharko du: 699487683.

Bestalde, Gordelekuko arduradunek jakinarazi dutenez, iraganeko trasteak dohantzan jasotzen jarraitzen dute; aipatu telefonora deitu beharko da horretarako.

Burdinak, bere kolaboratzaileei eta tresnaren bat dohaintzan eman duten pertsonen aurkeztu zien Gordelekua, urriaren 7ko asteburuan.

Elkartek, 20 urteko ibilbidean, han hemen jaso izan duen ondarearekin nahiz herritarrek

dohaintzan emandako trasteekin osatu dute Gordelekua, Andoaingo Udalak utzitako egoitzan.

Bizimodu tradizionalaren ispilu izateko erakuslekua

Geure arbasoen lanbideak, bizimodua, pentsamendua... modu xumean bada ere, islatuko dituen museo bat antolatzea izan da Burdinaren egitasmoa hasieratik, eta lanbide horretan azken bizpahiru urtetan jardun ostean, emaitza gizarteratzeko lanketari ekin diote.

Traste emaleek ondare historikoaren ikuspegitik balio handia daukaten objektuak utzi dituzte orain arte.

Aurreko astean, emaile horietako batzuk bildu ziren Gordelekuan; besteak beste, Esther Urrutia, Aitor Arribillaga, Regino Otegiren familia, Bakartxo Barriola, Joxe Antonio Huizi eta Manu Izagirreren familias.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdieta).
Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Argazkia iazkoa da, Urnietan ateratakoa. Aurten Andoainera zabalduko da Gau Beltza, Larramendi Bazkunaren eskutik. AIURRI



Lebiton konpartsaren eskutik, zezen-suzkoa izango dugu. AIURRI

Zezen-suzkoa Etxeberrieta plazan

Gau Beltzari amaiera emango zaio suzko ikuskizunarekin. Lebiton konpartsaren laguntzari esker, zezen-suzkoa plazan hara eta hona ibiliko da. Txokolatea, gaztainak eta taloa jan ostean, korrikaldi saioa egin beharko da!

Gau Beltza iristear da Andoainera

Urriaren 31n eta azaroaren 1ean izango dira herritik kanpo asteburu luzeaz gozatzen ibiliko diren andoainarrak. Baina arimen gaua Andoainen igarotzeko asmoa duenarentzat bada plan berezia: Gau Beltza. Iristear da gure artera

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Komunikazio teknologien urrezko aroan, mundua berdintzeko saiakerak eraginkor suertatzen ari dira. Bereziki, kapitala eta merkatuarentzat. Urriaren 31 iritsi orduko, azken hamarkadan nabarmen, AEBtik datozen kultur korronteak nagusitzen hasi dira. Arimen gaua, ordea, ez da soilik amerikarren ohitura. Euskal tradizioan itsatsita dago, eta geroz eta udalerrri gehiagotan euskal kutsuko ospakizunak antolatzen ari dira. Andoainen, aurten, Gau Beltza udalerrri osora zabaltzeko egitasmoa aurkeztu du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Lehena izango da, abiatzekoa, eta geroan errepikatuko bokazioz jaio da. Datozen

egunetan, beraz, Gau Beltzari dagokion moztorra janzteko lanak hartu beharko dira. Gogoa edukiz gero, moztorra prestatzeak ez dio festazaleari lan handirik emango. Aukeren artean, aurtengo ediziorako bi jantzi ezberdin proposatzen dira. Lehena, mahoizko galtzak eta alkandora jarritz. Bigarrena, maindire zuria eta artzai-andre jantzia ipiniz. Eta, kasu guztietan, "Andoaingo Gau Beltza" izena daraman kapela eta arimen gauan ohiko den zapi edo maindire zuria. Zulatu-ta, begiak eta ahoa erakusteko moduan. Horiexek dira jaiaren parte hartzeko ideia bi. Hortik aurrera, ongiatorriak aldaera ezberdinak. Prest egon gaitezen, Gau Beltza hemen baita!

GAU BELTZA

ESKURATU KAPELA ETA ZAPIA 5 EUROTAN

Kale Nagusiko KEINU dendan

943 02 96 76

Kale Nagusia,12



Gau Beltza geroz eta herri gehiagotara zabaltzen ari da. AIURRI

Kalejiran, Goikoplazatik Etxeberrieta plazara

Gau Beltzaren lehen edizioa udalerrri osora zabaltzeko apustua egin da. Goikoplazan hasiko da ospakizuna, eta Kale Nagusia eta Zumea plaza zeharkatuz Etxeberrieta plazan amaituko da. Arratsalde-iluntze magikoa izango da

Erredakzioa ANDOAIN
Euskal tradizioan oinarri duen ospakizuna izango da urriko azken egunekoa, Arimen Gaua edo Gau Beltza bezala ezagun dena. Udalerrri osora zabaltzeko saiakera egin da, gainera. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Euskaraldiaren eragile izaten ari da Andoainen, Andoaingo Udalarekin lankidetzan. Horrez

gain, jarduera eta ekinbide gehiagotan murgilduta dago. Urriaren 31ra begira, bazkide talde batek Gau Beltzaren ospakizuna Andoainen abiarazi eta txertatzeko asmoa agertu izan zuen. Bada, asmo hori aurtan gauzatzen hasiko da, Gau Beltzaren lehen edizioarekin. Antolakuntzaren xehetasun asko elkarteak bere gain hartu baditu ere, herriko

hainbat eragileren lankidetzarekin, festa borobila izateko bidean da. Andoaingo Udalaren Enplegu eta Sustapen ekonomikoaren lantsailaren laguntzaz gain, herriko elkarteen laguntza aipatu beharra dago. Batzokian, Irunberrin eta Kotoin laguntza eskatu orduko erantzuna baiezkoa izan da. Zinez, eskertzekoa da.

TALO JATEA

Etxeberrieta plazan

Txartelak salgai:
Anaiak, Urrats

ANDOAINGO
GAU BELTZA

URRIAK 31, ASTELEHENA

TALOA 5€

Txokolatea, gaztainak eta talo-jatea



Arratsaldeko 18:00tan hasiko dira txokolatea banatzen. AIURRI

Txokolate-jatea Goikoplazako Kontzejupean txokolatea eta bizkotxoak jateko postua ipiniko da. Mozorrotutako jendea bertan elkartu eta askari goxoaz gozatzeko aukera izango da. Batzokia elkarteko kideen laguntzari esker egingo da txokolate-jatea.



Gaztainak eskainiko dira Kale Nagusian, 19:00ak aldera. AIURRI

Gaztain-jatea Goikoplazatik Kale Nagusian behera abiatuko da kalejira. Oinezko gunean sartu orduko gaztain-erreak jateko aukera izango dute kalejirako partaideek. Irunberriko elkarteko kideen laguntzari esker egingo da gaztain-jatea.



Etxeberrietan taloa janez afaltzeko aukera izango da, 20:00tan hasita. AIURRI

Talo-jatea Kale Nagusitik, Zumea kalea zeharkatuz, kalejirako partaideak Etxeberrieta plazarantz abiatuko dira. Bertan egingo da azken ospakizuna. Kotoi elkarteko lagunei esker, taloa janez afaltzeko aukera izango da.



Bernardo Atxaga. ARGINDAR



Imanol Rayo. ARGINDAR



Garazi Kamio. ARGINDAR

"Bi Anai" Atxaga, Rayo eta Kamioren konpainian

Literatura garaikidean nabarmendu den eleberria idatzi zuen asteasuarrak, eta, liburu hura oinarritzat harturik, bere lehen filma egin zuen arbizuarrak. Aurreko ostiralean, filmaren emanaldi berezia egin zen. Solasaldi atsegina gidatu zuen andoaindarrak

Xabier Lasa ANDOAIN

Aiurrik eta Basterok ez ohiko film emanaldia antolatu zuten, aurreko ostiralean. Eta hitzorduak 150 lagunetik gorako zinemazaleen erantzuna izan zuen. Ez da eskasa, ez, duela hamaika urte estreinatu zen filma berrikusteko Andoainen bildu zen jende kopurua. Tartean ziren, nola ez, Aiurriko harpidedunak eta Bas-

tero Kulturguneko bazkideak. Baina baita Bernardo Atxagari Joxe Irazu bere benetako izenarekin deitzen dioten asteasuar askotxo ere. Eta ezin aipatu gabe utzi ere Andoaingo Zinema eta Bideo eskolatik hurbildu ziren hainbat ikasle eta irakasleak ere. Zinema emanaldi berezia izan zen eta, zorionez, ikusleen erantzuna bikaina izan zen.

Emanaldiaren ondorengo solasaldian, Rayok eta Atxagak nobelaren zein filmari lotutako xehetasunak eta gogoetak azaldu zituzten, Kamioren galderei erantzunez. Bata 1951ean jaioa eta bestea 1984an, liburuia 1985ean argitaratu zen. Datu horiek mahai gainean jarrita, Kamiok galdetu zien ea nola gertatu ote zen belaunaldi guztiz desberdinekoak

diren bi sortzaileen arteko kontaktua. Rayok aitortu zuen "Bi anai" 12-13 urterekin irakurri zuela eta mugarri suertatu zela bere bizitzan.

Arbizuko zinegileak Atxagak berak eman zion askatasuna eskertu zion: "Formalki aski berezia da pelikula eta ez dakit nola harrapatzen duen jendea. Atxagarengana proposamenarekin joan nintzaionean, argi utzi nion lantzen duen garaia ez dela nik bizi izan dudana, eta distantziak jorratu nahi nuela nobela. Nire begirada pertsonaletik lantzeko asmoa nuen, eta nobelak daukan narrazioaren mintzoa osotasun batera eraman nahi nuela". Nobelaren muinari heldu ziola erantsi zuen Rayok: "Trudietan errepikapenak daude, errutina bat dago, erritual bat... Eta islatzen da agortzearen doan mundua".

"Zuretzat zer da Bi anai?" galdetu zion Kamiok Atxagari, jarraian. Eta atzera begira jarri zen Asteasuko idazlea: "50eko hamarkadan jaio izana abantaila zuzena izan zen, garaitsu horretan sortutakoek mundu zaharra ezagutu baikenuen. Mugarria eman baitzen orduan, mundu zahararen eta modernoaren artean. Eta azkar esanda, mugarria, telebistaren etorrera izan zen. Gizarte zaharra, non telebistarik gabe informazio asko falta zen, non ez politika ezta politikaririk ere ez zeuden. Eta are garrantzi handiagoa duena, ez zegoen psikologiarik, ez psikonalisirik, ez Freudik, ez hizkera bat, gaur egun Andoainen denok erabiliko duzuen eta nik ere erabiltzen dudana; mundu hartako hizkeran ez ziren depresioa, paranoia, eskizofrenia eta horrelako adierak esistitzen".

Atxagaren poza filmarekin

Rayok zinemarako egindako bertsioa "izugarri ona" iruditzen zaio Atxagari: "Pozik nago Rayok egin zuen irakurketa filmikoarekin, eta hori suerte handia da idazle batentzat. Ez baita beti hori gertatzen. Bi anai nire bihotzeko pelikula da".

Iragarri bezala, 35 mm-ko formatuan eskaini zen filma. Garai batean bezala, modu analogikoan eta egungo joera digitaletik urrun.



Filmaren pasartea. BI ANAI



andoaINDARRA
euskaraz



Kuadrilla polita elkartu zen Etxeberri plazan. ETXEBERRI

Kulturarteko jaia Etxeberri plazan

Kulturarteko festaren hirugarren edizioa antolatu berri du Etxeberri elkarteak, auzoaren erdigune den plazan. Hasi eta buka, egitarau oparoaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Borobil joan da asteburua Urnietako Etxeberri plazan. Izan ere, iragan den larunbatean, kulturarteko festa ospatu zuten, auzoko elkarteak antolatuta. Hirugarren edizioa izan da aurten goa, herritarren arteko hartu-emanetan gertutasuna bermatzeko eta askotariko kulturen bateragune bihurtzeko.

Lan-taldea kide gutxi osatzen badu ere, ondo baino hobeto josi zuten eguna, adin eta gustu guztiei begira. Eguerdia partean, makina bat koloretako paraxuta zabaldu zuten ondorengo bazkarirako janariari harrera egin bitartean. Nork bere ekarpena egin behar zion bazkariari, alegia, parte hartu ahal izateko, bakoitzak zerbait eraman behar zuen. Horrekin batera, foodtruck-a ere bertaratu zen eta jaima bat ipini zuten Marokoko tearekin eta opilekin. Behin bapote geldituta, tailerrekin zieten, hennarekin, ileko trenzekin nahiz Mendebaldeko

Afrikako oihalekin. Era berean, azokarako tarte egin zuten egitarauan: belarritako postuak ipini ziztuzten Mikikka, Bihurri, Helebenet eta Uhara artisauak eta makramezko bitxiak, berriz, Maitandu-k; Zaporeak ere izan zen, aurreko edizioan bezala. Puochi Nah-ko kideak oihala afrikarrekin egon ziren eta baita Koloreztatu ere, xaboiekin eta artisau kosmetikarekin. Doinu irlandarreko Txoko Berri's Bandek girotu zuen atsalde beroa, eta, jarraian, lekukotza eman zion Alarma moreari, euskara eta erritmo flamenkoak batzen dituen taldeari.

Oso zapore onarekin gelditu dira antolatzaileak. Goizeko ekitaldira, joko kooperatiboeta-

HERRIALDE ASKOREN ZERRENDA LUZEA BATU DA KULTURARTEKO FESTARA

ra, jende asko agertu ez arren, ondo baino hobeto igaro zuten goiza bertaratu zirenek. Inertzia bera ikusi zuten antolatzaileek ondorengo bazkarian, 35 bat herritar gerturatu baitziren. 15:30-16:00 aldera hasi zen jendea plazara hurbiltzen, azokako eskaintza kuxkuxeatzeko gogoz. Nolanahi ere, arratsaldeko bi hitzordu nabarmendu dituzte elkarte kideek: jende andana erakarri zuten tailerrekin, batetik, eta baita Alarma morearen kontzertuak ere, bestetik. Azken horretan, adibidez, klake erakustaldia egitera animatu zen herrikide bat, taldeko melodiez girotuta.


Hiru urteko ibilbidean, herrialde askoren zerrenda luzea batu da kulturarteko festara, besteak beste, Etiopia, Kamerun, India, Kolonbia, Frantzia, Mexiko, Maroko, Alemania eta Argentina. Urtetik-urtera, gehiago eta aberatsago. Jarrai dezan inertziak horrela, datozen urteetako kulturarteko festan.

Ekimen parte hartzailea



Nor bere herrialdeko jatorrizko jantziekin gerturatu zen. ETXEBERRI

Geroz eta herrialde gehiago Etiopia, Kamerun, India, Kolonbia, Frantzia, Mexiko, Maroko, Alemania eta Argentina. Urtetik urtera, herrialde gehiagoko partaideak hurbiltzen ari dira Urnietako ospakizunera.



Azala hennaz margotzen. ETXEBERRI

Jende andana arratsaldean Tailerrekin eta Alarma morearen kontzertura jende asko hurbildu zen. Arratsaldean, beraz, parte-hartzea nabarmen igo zen. Oso zapore onarekin gelditu dira antolatzaileak.



Urnietako
udala

"Amestutako garaipena izan da"

JOKIN LIZEAGA MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK Zor bat zuen Basajaun mendi lasterketako lagunekin, eta aurreko igandean zor hori kitatu zuen. Nola, gainera! Vini, vidi, vinci; epikoa, emozioz gainezka



Aitziber eta Sergio Basajaun mendi lasterketaren antolatzaileak, Jokin Lizeaga txapeldunarekin. URBISTONDO



Besarkada sentitua helmugan, Ainhoa bikotekidearekin. URBISTONDO



Iñaki Bilbao bigarren sailkatua, Jokin zoriontzen. URBISTONDO

Erredakzioa URNIETA

Balentria baten atzetik, bestea. Irailean, ezustean, berragerpena egin zuen Jokin Lizeaga urnietarrak. Osasun arazoengatik, denbora tarte honetan hamaika aldiz lehiaz kanpo geratu da. Nahi zuen, saiatzzen zen, baina ezinezkoa egiten zitzaion entrenamendu soil bat egitea. Ez zuen etsi, eta uda honetan dortsala berriro jantzi eta lasterketa batean korrikalari aritzeko auke-

ra bistaratzen hasi zen. Irailaren 10ean, Ubideko proban irten eta bigarren amaitu zuen, Hassan Ait Chaou lasterkari handiaren Jokinen lagun handiaren atzetik. Honako hauexek Andoni Urbistondori eskaini zizkion adierazpenak: "Maiatzean, ibili ezinik nenbilen, minez jota. Tratamendu bat hasi nuen, eta, nonbait, hezurak bere onera itzuli dira. Minik gabe, orain bost urte neukan bizitza zoriontsu hartara,

bete hartara bueltatzea izan dut buruan, obsesio bilakatu arte. Dorsalarekin korrika egin nahi nuen berriro, kosta ahala kosta, eta lortu dut. Bukatzear den uda aspaldiko onena izan da, olatu ona hartu dut eta gustura nago".

Basajaun mendi-lasterketa

Orduko hartan dagoeneko begiz jota zuen Nafarroako Galdean on antolatzen zen Basajaun mendi-lasterketa. Bazuelako halako

zor modukoa. Sergio Aramendia korrikalariak antolatzen du proba, Asturiasko zorigaitzoko istripu hartan Lizeagari laguntza eta babesa eman zion korrikalariak. Urtez urte ezezkoa ematen, udazken honetan prest zegoela adierazi zion. Eta hantxe zegoen irteeran, igande goizean. Gertutik jarraitu zuen proba Andoni Urbistondok, eta hura izan zen urnietarraren garaipen handiaren berriemailea.

"Izugarria"

Hemen, Lizeagaren poza, hitzez adierazita: "Pozik nago, urte asko maratoi bat egin gabe, eta amaitu gabe. Istripua ere maratoia egiten izan nuen. Zor nion Sergio antolatzaileari, zor nion mendi maratoiari. Gaur ausartu naiz eta, egia esan, uste baino hobeto. Bukatu, minik hartu gabe, eta, gainera, garaile. Izugarria. Amestutako garaipena izan da".



Hamargarren denboraldia abiatu da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KMO produktuez betetako otarra.



Amaiur Abrego selekzioarekin

FUTBOLA Antiguoko taldeko Ohorezko Kadete Mailako jokalaria da, eta, egun, Euskal Selekzioarekin ere entrenatzen du. Asteartean, arratsaldeko 18:30ean, Andoaingo Ubitarte futbol zelaian entrenatu zuten eta ikusle ugari gerturatu ziren jakinminez. Andoaindarra maila ona erakusten ari da egun, eta zeresana emango du etorkizunean ere.



EUSKALDUNA

Mendizabal, azpitxapeldun

PILOTA Olatz Arrizabalaga eta Andrea Capellan emakumeen esku pilotako lehen Hiru Hiriburuak txapelketako txapeldunak bilakatu dira, Aldai-Mendizabali irabazi ostean (22-15). Arrizabalaga gernikarra nagusitu zen bikotearen zama bizkar gainean hartuta. Horrez gain, ikusmira handia izan zen eta 1.400 pilotazale bertaratu ziren Atanora.



EMAKUME MASTER CUP

Jardunaldi kaskarra

ESKUBALOIA Urnietako eskubaloi taldeek ez zuten garaipen bakar bat ere lortu iragan asteburuan. Emakumezkoen infantil eta kadete taldeek etxean jokatu zuten. Gizonezkoen infantil, juvenil, senior eta emakumezkoen senior taldeak, berriz, kanpoan. Hala ere, talde urnietarrak jardunaldi ona egitetik urrun geratu ziren, izan ere, ezin izan zuten garaipenik eskuratu.



UIKE



AIURRI

Leizaran taldearen batzarra

ESKUBALOIA Leizaran eskubaloia taldea martxan dago, eta, ostiral honetarako, bazkideen ez ohiko batzarra deitu dute. Egun berean izango da batzar ekonomikoa ere. Iluntzeko 20:00tan hasiko da Urigainen, ostiral honetan bertan. Klubeko bazkideei hitzordura bertaratzeko dei egin die Andoaingo talde eragileak.



BURUNTZALDEA IKT

Lehen hitzordua, asteburuan

IGERIKETA Buruntzaldea Igeriketa Taldekoek asteburuan edukiko dute denboraldiko lehen hitzordua; infantil, junior eta senior mailakoek Tolosako Usabal Kiroldegian lehiatu beharko dute Neguko Ligan. Txapelketa arratsaldeko 16:00etatik aurrera hasiko da. Informazio gehiago eskuragarri dago buruntzaldealKT webgunean.

URRIAK 22 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA

150 PARTIDIA 35 TANTO
ZALDUA II • ZALDUA
ETXARRI • LABAKA

BINAKAKO PARTIDIA 40 TANTO
GOIKOETXEA V • BARRENETXEA IV
ANSA II • JUANENEA

3. PARTIDIA 40 TANTO
EZKURRA II • ZUBIRI
ALDABE • LARRAÑAGA

BINAKAKO Orona
Fundazioa
Foundation

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

ERREMONTEA TXAPELKETA 2022

ORIA MENDI | ERREMONTEA BIZIRIK

PAPELERA GUZUCOMANA DE SEGURADA S.A.U.

sukia

K

AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGURDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

LARUNBATA 22

ANDOAIN Elkarretaratzea

"Emakumeak, bizitza eta askatasuna" lemapean Iran eta Afganistango emakumeen aldeko elkarretaratzea deitu du herritar talde batek.

12:00 Goikoplaza.

ANDOAIN Dantza

"El Iago" dantza garaikidea.

19:00 Bastero.

IGANDEA 23

URNIETA Haur antzerkia

"Tarzan" haur antzerkia, Mar-Mar konpainiaren eskutik.

17:30 Sarobe. 3 euro.

ANDOAIN Dantza

Euskal jaialdia, Urkiren eskutik.

Informazio osoa 5. orrialdean

Egun osoan zehar.

ASTEARTEA 25

ANDOAIN Parketarrak

Haurrak euskaraz aritzeko ekimena, Udaleko euskara sailaren eskutik.

17:15-18:15 3-5 urtekoentzat.

18:15-19:15 6-9 urtekoentzat.

Goikoplaza.

ASTEAZKENA 26

ANDOAIN Parketarrak

Haurrak euskaraz aritzeko ekimena, Udalaren eskutik.



Andoain lehen aldiz egingo dute Gau Beltza. MENDI URRUZUNO

ANDOAIN Gau Beltza

Andoain euskararen aldeko ospakizuna antolatu du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, herriko elkarte ezberdinen lankidetzarekin eta Udalaren babesarekin. Txokolate-jatea, gaztain-jatea, talo-jatea, zezen-suzkoa...

Urriak 31, astelehena. 18:00tan hasita.

17:15-18:15 3-5 urtekoentzat.

18:15-19:15 6-9 urtekoentzat.

Zumea plaza.

ANDOAIN Aurkezpena

"Notas para Pedro Aizpurua, 2019-2020" liburua aurkezpena.

Fernandez Magdaleno da egilea.

19:00 Bastero.

OSTIRALA 28

ANDOAIN Erakusketa

Udane Juaristi Azkoitiko

margolariaren erakusketa.

Bastero, erakusketa aretoa.

Urriak 28-Azaroak 26.

IGANDEA 30

ANDOAIN Txotxongiloak

"Erreka Mari", Euskal Herriko azken lamina da. Txotxongilo saioa haurrentzat.

12:00 Bastero. 4 euro.

ASTELEHENA 31

ANDOAIN Parte-hartzea

Herritarrek aurkeztutako hainbat proposamenetatik, aukera egin dezakete herritarrek. Informazio gehiago, 7. orrialdean.

Azken eguna: Urriak 31.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Hurrengo larunbatetan ez da emankizunik izango.

Los renglones torcidos de Dios

Igandea, 23. 19:30. Astelehena, 24.

19:30, 22:00 (Ikuslearen eguna).

Izurde mutikoa

Igandea, 23. 12:00.

En los margenes


Larunbata, 29.

19:30, 22:00

Igandea, 30. 19:30.

Astelehena, 31.

19:30, 22:00



SINOPSISIA



LOS RENGLORES TORCIDOS DE DIOS

Zuzendaria: Oriol Paulo. Aktoreak: Barbara Lennie, Eduard

Fernandez, Loreto Mauleón, Javier Beltrán, Pablo Derqui. Iraupena:

154 minutu. Generoa: Thriller, drama. Urtea: 2022.

Datorren Aiurri azaroaren 4an

Aiurri astekaria urteko 42 ostiraletan argitara ematen da, eta 2022ko egutegiari erreparatuta, datorren astean ez da astekaririk argitara emango. Hurrengo Aiurri, 752. zenbakiduna, azaroaren lehen asteburuan argitara emango da. Bien bitartean, Angoango eta Urrietako albisteen berri Aiurri.eus webgunean eta sare sozialetan eskainiko ditu erredakzio taldeak.



AIURRI

EUSKARAREN MARATOIALDIA

EUSKARAREN 10. MARATOIA

ETORRI ETA SENTITU!

LASARTE-ORIA **urriaren 22an eta 23an**

musika txosna ikuskizunak

sentitu... prestatu... eta ekin!

eta 40 ordu euskaraz!

LASARTE-ORIA

752



EGAPE

Egapekoak "Bizi EITB" festan

Aurreko larunbatean milaka lagun elkartu zen Bilbao Exhibition Centre-n, EITBk antolatutako ekimenean. Eta bertan izan ziren Egape dantza taldeko kideak, Korrontzikoekin batera. Ospakizunak iraun bitartean, 9.000 euro inguru bildu ziren, Esklerosi Anizkoitzari aurre egiteko xedea duen EITB Maratoiarentzat. Gabonetan telebistan ikusteko aukera izango da.

Urnietako Jabekuntza Eskolan izena emateko aukera

Jabekuntza Eskolaren udazkeneko programazioa prestatu du emakumeentzat Urnietako udalak, "udalerriko emakumeen ahalduntze-prozesuak bultzatzen jarraitzeko asmoz". Izena emateko epea urriaren 13an amaitu zen, baina plaza libreak daude ondorengo tailerretan:

- Irakurketa tailerra.
- Emak(gune).
- Fatima (zineforum feminista).
- Fabricando mujeres 2.0 (zineforum feminista).
- Autoezagutzaren haziak ereiten: neska gazteentzako jabe-kuntza eskola

Beraz, interesa dutenek oraindik izena emateko eta parte hartzeko aukera dute, Urnieta.eus webgunean.

Hitzorduak azaroan

Azaroan, bestalde, Berdintasunaren alorreko ekitaldi sorta iragarri dute. Irantzu Varelak, esaterako, "No hay matriarcado en el supermercado" ikuskizuna eskainiko du azaroaren 23an.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Ander!!!
15 urte dagoeneko!
Jarraitu orain arte bezain jatorra izaten.
Muxu asko etxekoan partetik!



ANDOAIN
Ainhoa Makazaga
Zorionak Ainhoa!!
Urriaren 13an 29 urteko beteko dituzu! Jarraitu bizitzaz gozatzen zuk dakizun bezala :) muxu pottoloak etxekoan partez!



ANDOAIN
Zorionak Axier
Urriaren 18an 11 urte bete dituzu. Orain arte bezala jator jarraitu. Asko maite zaitut, etxeko guztien partetik muxu asko.

Urte askotarako

www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean
Whatsapp bidez:
619 16 35 37
diseinua@aiurri.eus
Arantzibia 4-5, behea Andoain
Telefonoa: 943 300 732



ANDOAIN
Zorionak Mikel
Datorren astean Mikel lankideak urteak beteko ditu. Ondo-ondo pasa! Zure lankideak.



URNIETA
Zorionak Alba
Aste honetan urteak egin ditu gure lankideak, eta pasta goxoak janez ospatu genuen. Biba!

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. Informazio gehiago: **650 34 11 08** telefonoan.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietako: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.

Ekonomia modernizatuz.

Mundua aldatzen ari da, eta ekonomiaren eraldaketa azkartzen. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldearen etorkizun ekonomikoak lantzen ari da duela lau urtetik, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bidez.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako Foru Aldundia



ETORKIZUNA ORAIN



GAU BELTZA

Beldurrak
piztu,
iluntasuna bizi.



Eta **zuek?**
Zer **ospatzen**
duzue?



ANDOAIN
URRIAK 31, ASTELEHENA



ANDOAINGO UDALA
Enplegu eta Sustapen
Ekonomiko Lansaila

gaubeltza.eus

